

Parkea diseinatzen

Elkarrizketa: Gabina Sodupe
2020-2025 ekintza plana
Itsasondoko pagadiak



Hemen gara berriz ere, normaltasuna ez den normaltasun berriko oportunitate bueltan. Oporrak, berez ez dut uste gaizki egon direnik. Batzuek aurrerako urteetako opor moldearekin jarraitu badute ere, beste askok oporrak bertatik bertara egiteko baliatu dituzte. Egia esan, askorentzat deskubrimenduz beteriko uda izan da; urrutiko intxaurrek ahaztu eta

gertuko intxaurretara so egitekoa, eta behingoz oporretan benetan deskantsatzekoa.

Hainbat txerto eta sendagairen inguruko berriak egunero baditugu ere, badirudi COVID-a gure artean luzaroen geratzeko etorri dela. Horregatik, berearekin bizitzen ikastea beste erremediorik ez dugu. Ohikoa zena ez-ohiko bihurtu da, eta ez-ohikoarekin bizitzera ohitu beharko dugu. Orain urtebete horrelakorik kontatu izan baligute, inor gutxi sinistuko luke; baina esaerak dioen moduan, errealitateak fikzioa gainditzen du, eta oraingoan, behintzat, luzaz.

Halere, bizitzak aurrera jarraitzen du, eta Itsasondo ere egoera berri honi neurria hartu nahian dabil: oreka non aurkitu, zer ekimen eta zerbitzu abiatu eta nola ekin segurtasuna uneoro oinarri hartuta. Etxeko haur eta gazteak, martxotik presentzialki etenda egon diren haurreskola, eskola, institutu eta unibertsitatera itzuli dira. Horretan ere berezitasun eta muga asko izango badituzte ere, aspaldiko partez ikaskide eta irakasleekin gela eta bizipenak konpartitu ahal izango dituzte. Online eskola, besterik ezean, ez da irtenbide txarra, baina aukeran, aurrez aurrekoa askoz hobea da, nahiz eta lagunak besarkatu eta atximurkatzeko beste pixka bat itxaron beharko den.

46. zenbaki hau, nola ez, COVID-19ak baldintzaturik datorkigu, hainbat ekimen bertan behera utzi dira, eta ezin izan dugu haien berri zuei eman. Dena den, ahal izan dugun heinean, ahalik eta aldizkari osatuena egiten saiatu gara. Zenbaki honetako elkarrizketako nagusia Gabina Sodupe dugu, eta ez du faltako zer kontatua. Udaleko berriak eta parte-hartze prozesuaren inguruko berri ere ematen dizuegu, beste askoren artean.

Ilusioz eta zentzuz, hasiera eman diezaiogun ikasturte berriari, ziur ez dela faltako ikasgai eta sopsararik. ■

Aurkibidea

- 03-04 **Udaleko berriak**
- 05 **Haurreskola**
- 06-07 **Eskola**
- 08 **Guraso elkarte**
- 09 **Partaidetza**
- 10 **Gazteria**
- 11 **Natura**
- 12-15 **Elkarrizketa:** Gabina Sodupe
- 16 **Informatika**
- 17 **Elkarrizketa:** Marthina Rotimi
- 18-19 **Ekintza-plana**
- 20-21 **Hemeroteka**
- 22 **Liburutegi txokoa**
- 23 **Errezeta / Euskararen atala**
- 24 **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Hamalau heriotzena*

Udazkeneko aalez
osa den bilduma:
udaletzeko lanek
ildo ezaguna,
eskola egokitzeko
datorren jarduna,
parkea eraberritzen
prozesu astuna
partehartze zuzena
eskutzen diguna.

liburuen arloan
aholku zerrenda
ondo aholkatzea
ona izaten da,
euskararen atala
bidean omen da
hemerotekarekin
errezeta, agenda...
ondo aukeratu ta
norbaiti gomenda.

Guraso Elkartearen
garaiko moduan
udalekuen gaia
dago akorduan,
herriko pagadiak
muga inguruan
eta elkarrizketan
kontuak buruan,
Gabinaren pasartei
arreta orduan!

Udaleko berriak

Urtea aurrera doa, eta udala ohiko moduan funtzionatzen eta aurreikuspenak egiten ari dela esan dezakegu; nahiz eta COVID-19aren eraginez, neurri bereziak hartu beharrean izan garen. Hauek dira ekintza eta erabaki garrantzitsuenak:

UDALBATZARRAK

Ekainak 15ean eta uztailaren 20an udalbatzarrak egin dira, eta erabaki hauek hartu dira:

- Aurrekontuan gastu gehiago egin ahal izateko, kreditu gehigarriak onartu dira 2019ko likidazioaren kontura. Guztira 2020ko aurrekontuak onartutako handitze guztien ondorioz, 1.280.585 €ko zenbatekoa izango du. Inbertsioen atala, guztira, 483.386 €koa izango da, aurrekontu osoaren %38.
- Goieki elkartetik proposatutako kapital handitzearen aldeko erabakia hartu da.

Onartutako mozioak:

- Ekainak 28an ospatzen den LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunaren aldekoa.
- Kaxintane taberna ustiaketan emateko prozedura burutu da, eta eskaintza bakar bat jaso denez, berriro ere beste bost urtean, tabernaren ustiaketan Rosi, Maite eta Jorge arituko dira. Orain arte bezala, lanean gogotsu jarraitzea eta zortea izatea opa diegu bizi dugun egoera zail honetan.


- Tramite guztiak burutu dira Itsasondoko Herri eskola berriaren eraikuntza egiteko behar den lursaila zuzenean eskuratu eta okupatzeko. Orain, sail hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari eskainiko zaio, eskola berriaren eraikuntza proiektua amaitu eta obrak egin ditzan.
- GI-2131 errepideko espaloia (Gure Ametsa etxearen inguruan) berritzeko obraren kontrataziorako espedientea bideratu da, eta obrak Iturrioz Eraikuntzak enpresari esleitu zaizkio, 43.740 €tan. Lanak urrian hasiko dira, eta hilabete batean amaitzea aurreikusten da.
- Enpresa bat kontratatzekeo tramitea burutu da, hilerrian lurperatze lanak egiteko eta grabaketa lanetaz arduratzeko.
- Nagusia 7an hutsik dagoen udalaren etxebizitza errentan emateko deialdia egin da. Bi eskaera aurkeztu dira; eta, balorazioak egin ondoren, hurrengo batzarrean errenta kontratua ematearen aldeko erabakia hartuko da.



- Musika eskola zerbitzua emateko, Idiazabalgo, Zaldibiako eta Legorretako udalekin adostutako hitzarmenaren arabera, aurtengo ikasturtean ere Ordiziako Musika Eskolak emango du zerbitzua Itsasondon. Aurten bederatzik ikaslek eman dute izena. Musikako eskolak udaletxeko aretoan emango dira.
- Lanbide langabezian dauden pertsonak kontratatzeke egin duen 2020ko deialdia aprobetxatuz, peoi langile bat kontratatzeke dirulaguntza eskatu da. Kontratazio horren deialdia udaleko pantailetan argitaratuko da; baina, aldez aurretik, interesaturik daudenak Lanbiden izena emanda egotea komeni da.

Beste zenbait erabaki eta espedienteen tramitazioa

- Gizarte larrialdietarako sei espediente onartu dira.
- Bide publikoen erabilera tasen lau espediente onartu dira.
- Ezinduentzako sei aparkaleku espediente onartu dira.
- Obra txikien baimenak tramitatu dira; guztira, hamar espediente. Beste bi ukatu egin dira.
- Herri-bideetatik egurrak ateratzeko hiru espediente tramitatu dira.
- Kamioientzako aparkalekuan hutsik zeuden plazak okupatzeko baimenak eman dira.
- Euskarazko ikastaroak egin dituzten bi bizilagunei laguntzak ematea onartu da.
- Apirilean jasotako fakturen zenbatekoa: 18.939,14 €.
- Maiatzean jasotako fakturen zenbatekoa: 4.287,07 €.
- Ekainean jasotako fakturen zenbatekoa: 33.175,74 €.
- Uztailen jasotako fakturen zenbatekoa: 36.016,94 €.
- Abuztuan jasotako fakturen zenbatekoa: 9.835,77 €.
- Udaletxeko kulturegunea eta lokalak erabiltzeko, herriko elkartea, partikular eta eragileen partetik bost eskari izan dira.
- 2020ko 1. eta 2. hiruhilabeteko ur errolda onartu da, 26.970,50 €ko zenbatekoarekin.
- 2020ko 2. lauhilabeteko zabor bilketako errolda 16.090,89 €ko zenbatekoa du.
- 2020ko egutegi fiskalaren aldaketa onartu da, eta horren berri eman da maiatzaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Hirilurren balio gainera hiru espediente tramitatu dira.
- Aguztiaz laguntzaile lanpostua lortu zuenak lana uztea erabaki zuenez, oposaketan jarraian puntu gehien dituen Urko Laskoz hernaniarra kontratatu da lanpostua betetzeko.
- Udal tasetan laguntzak emateko espediente bat onartu da.
- Hilerrian kontzesioak emateko espediente bat bideratu da.
- Berrito ere gizarte langilea beste herri batera aldatu denez, orain Ezkio eta Itsaso udaletan lanean zegoena kontratatu da behin behineko izaeran, bertako gizarte langilea murrizketan dagoen bitartean zerbitzua emateko. Bihotza da bere izena.



DIRULAGUNTZAK:

Eskatutakoak

- Foru Aldundiari Goiko kaleko eskola zaharreko ganbara konpontzeko.
- Foru Aldundiari basoak zaindu eta hobetzeko egitasmoa finantziazteko.
- Liburutegiko funtsak berritzeko eta irakurketa sustatzeko.

Jasotakoak:

- Herri eskolan arriskua duten zenbait gune egokitzeko Hezkuntza sailak 2.318 €.
- Partaidetza sustatuz Jolas eremua-parkea berritzeko proiekturako Aldundiak 6.502 €.
- Udaletxean jarritako autohornikuntza fotovoltaiko sistemaren instalazioa finantziazteko 5.861 € eman ditu Foru Aldundiak eta 3.268 € Eve-k gastuaren %53^a.
- Kirol eskolarra finantziazteko Aldundiak 1.425 €.
- Euskeraren aldeko ekintzak burutzeko Aldundiak 2.000 €.
- Biohondakinen kudeaketarako Aldundiak 7.835 €.
- Gipuzkoako korridore ekologikoak Itsasondoko udalerriaren duten egoera eta funtzionalitatea hobetzeko planifikazioa eta ekintzak finantziazteko Aldundiko laguntza 7.854 €. ■

Egokitzapena

Orain dela gutxi hasi dugu 2020-2021 ikasturtea Itsasondoko Urkipe Haurreskolan. Ikasturte hasiera hau desberdina eta berrikuntzaz betea izan da, COVID19-ak behartutako aldaketa guztiak gehituta.

Itsasondoko haurreskolan garrantzi handia ematen diogu haurren egokitzapenari, bai kurtso hasieran hasten direnenari, baita ondoren batzen direneneri ere. Izan ere, aurrera begira, haurreskolako egunerokotasunean ongi egoteko oinarri bat eraikitzen da egun hauetan.

Egokitzapenak hamar eguneko iraupena du haur berrien kasuan, eta derrigorrezkoa da egitea. Bigarren ikasturtea dutenek ez dute egokitzapen prozesua egin beharrik; hala ere, bost eguneko egokitzapen bat egitea gomendatzen diegu gurasoei. Beraz, beraiek erabakiko dute egin ala ez.

Malguak gara egokitzapen prozesu honetan, haur bakoitzaren egoera eta eguneroko jarrerak aztertzen ditugu. Horrela, haur bakoitzari egokitzapen prozesu indibiduala eta pertsonala eskaintzen diogu. Hau da, haur batek hamar eguneko egokitzapen prozesua amaitu, eta oraindik ez badago prest haurreskolako egunerokotasunerako, gurasoei egokitzapen prozesua luzatzeko gomendatzen diegu. Gurasoek aukera badute eta nahi badute, egokitzapen prozesuarekin jarraitzen dugu. Bestalde, haur bat egokitzapen prozesu horretan positiboki erantzuten ari bada, erreferentziako pertsona edo guraso horren presentzia gelan murrizten joaten gara. Haur guztien erantzuna desberdina denez egokitzapen prozesuan, garrantzitsua da bakoitzari bere prozesu propioa eta pertsonala egitea.

Ikasturtea zortzi haur eta bi hezitzaileekin hasi dugu. Zazpi haur 1-2 urtekoak, eta bat 0-1 urtekoa. Hala ere, taldekatzeko gela bezala hasi dugu kurtsoa, hau da, denak gela berean jarrita.

Haurarentzat, haurreskolako lehen egunak berekin dakar espazio, hezitzaile, haur, soinu eta egunerokotasun berriak ezagutzea. Jabetu behar gara haurarentzat aldaketa handia dela.

Haurreskolaren eta familien arteko harremanak garrantzi handia du. Izan ere, haurra seguru sentitzeko, familia ere seguru sentitu behar da. Horretarako, beharrezkoa da familiaren eta haurreskolaren arteko konfiantza eraikitzea eta denbora partekatzea. Horregatik, hurbileko harreman bat eratzea funtsezkoa ikusten dugu.

Hezitzailearekin lotura afektiboa eraikitzen hasten da, horretarako, denbora, afektua eta konfiantza eskainiko diogu, haurra seguru senti dadin. Lotura hau eratzen hasten den hasierako egun horietan, haurra behatzen dugu; bere beharrak, ohiturak, gustuko jarduerak... ezagutzeko eta egokitu ahal izateko.

Haurrari segurtasuna ematen dio erreferentziako pertsona ondoan edukitzeak. Hark hezitzailearekin harremana duela ikusiz gero, konfiantza emango dio haurrari. Ondoren, erreferentziako pertsona hori ez dagoenean, hezitzailearengana jotzeko. Horregatik, garrantzitsua da erreferentziako pertsonaren presentzia aldi baterako haurreskolaren eguneroko bizitzan txertatzea, hezitzaileari haurra ezagutzen laguntzeko.

Hasierako egunetan, erreferentziako pertsonaren presentziak lagundu egingo du ondoren etorriko den banaketa momentua eramangarriagoa izaten. Banatzeko lehen momentua laburra izango da, haurra jabetzeko hezitzailearekin eta beste haurrekin geldituko dela haurreskolan; eta, egonezina agertuz gero, ez areagotzeko.

Lehen banaketaren ondoren, murriztuz joango da erreferentziako pertsonaren presentzia; beti ere, haurraren beharrak eta ongizatea bermatuta daudela ziurtatuta. Horrela, haurreskolaren egunerokotasunean murgiltzen joango da. Oso garrantzitsua da haurra ikasturtean zehar ondo egoteko egokitzapen prozesuari behar zaion denbora eskaintzea. ■



Gogoeta eta gero... hasteko prest!

Ikasturte berezia izan da aurrekoa... Itsasondon, Goierrialdean, Gipuzkoan... baita mundu mailan ere! Ez da erraza izan inon!

Hala ere, asko ikasi dugunaren sentsazioa izan genuen ekainaren bukaeran, baita orain ere. Eskola osatzen duten taldeekin lan egin dugu (ikasleak, gurasoak, udaletxeak, berritzeguneak, eskola txikietako koordinatzaileak...) inoiz baino gehiago, eta gure arteko begirunea nabarmendu nahi dugu hainbat aipamenekin.

Ikasleei, lehenik: **konfinamendu garaian, "COVID 19" hitzarekin batera "Konpetentzia digitala"** maiz entzun dugu. Ikasle guztiak jardun dute lanean, bakoitza bere mailan, egoeraren arabera, eta erantzun egin diote beraien behar eta ikasketei. Hala ere, hori ez da izan garrantzitsuen, gure ustetan, behintzat.

"Erresilientzia" deitzen den gaitasuna garatzeko aukera izan dute; gizakiak trauma bati aurre egiteko gaitasuna, alegia. Maila txiki batean bada ere, gizaki hobeak izateko aukera eman du egoerak. Etxe guztietan ez dira errealitate berak izan, baina **guztiak** lagun fisikorik gabe, aitona-amonik gabe... geratu ziren egun batetik bestera.

Gainera, honi gehitu behar diogu pandemia berezi honetan kutsatzaile potentzial bezala hartu direla haurrak. Ez dute batere erraza izan!

Honegatik, MILAKA ZORION GUZTIO!

Ikasleekin ari garen honetan, **6.mailako ikasleak ez zuten izan ohiko agurra.** Hala ere, gehiegi gerturatu ez ginen arratsalde hartan, emozio eta sentimendu politak antzeman ziren. Inoiz ahaztuko ez dugun egoera suertatu zen, eta horrek une hura are "bereziagoa" egin zuela adierazi nahi dugu.



Konfinamenduan, protagonisten ondoan, gurasoak egon dira. "Hezitzaile" bihurtu dira etxe-etan, eta hainbat ardura ere helarazi eta jaso dituzte. Askok adierazi dute pozik egon direla eta seme-alabekin egoteko aukera ere izan dutela. Beste batzuei, berriz, ez zaie erraza egin: beldurrak, kezak... azaldu dira.

Irakaslegoak ere asko ikasi dugu; elkarrengandik ikasi dugu, elkarri entzun diogu eta elkar lagundu dugu. Benetako taldea egin dugu.

Eskerrak, baita ere, udal langileei, gure beharrak erantzuteagatik; baita boluntario aritu diren guztiei ere, haurrei ahal zuten ondoen egoteko aukera eman dietelako.

Jada agur esan diogu konfinamendu garai hari. Orain beste ikasturte bat hasi dugu, berezia bada ere.

Ikasturte hasiera honetan, **egokitzapena** egingo da 2 urteko zazpi-zortzi haurrekin, baita 3 urtekoekin ere.

Baina ez dira izango egokitzapena egingo duten bakarrak izango, 4-12 urte bitarteko haurrek ere errealitate ezberdin batera egokitu beharko dute.

Kontigentzi plana gauzatu eta behatzak gurutzatuko ditugu. Egoerei aurre egiteko gogoz eta ilusioz jardungo gara. Hori ziurtatzen dugu! ■



Udalekuak, COVID-arekin bada ere aurrera!

Denok dakigu nolako urte berezia bizi izan dugun, koronabirus hitza gure eguneroko hiztegian ongi txertatua dugu dagoeneko, baita hidrogela, musukoak eta desinfekzioak ere. Honek denok gure bizimodua erabat aztoratu du, eta hankaz gora jarri ere bai; batzuen gehiago besteena baino.

Ixialdiak onurarik izan badu ere, emozionalki kalterik ere eragingo zuen. Hori dena kudeatzeko, izugarriko apustua egin nahi izan zen herrian. Haurrek kalean jolastu behar dute, beste hurrekin erlazionatu... Izaki sozialak baikara. Gure haurren bizimodua ahal bezain normalena izateko, aurten ere herriko udalekuak martxan jarri ziren.

Ez zen lan erraza izan, ezjakintasuna baitzen nagusi: "Goikoek" antolatzeke baimena emango al zuten?; Zeintzuk izango ote ziren antolatzeke baldintzak?; Zein neurri hartu beharko genituen?; Begiralerik izango ote genuen?... hamaika galdera, eta erantzunak tantaka. Hala ere, aurrera egin, eta herriko hainbat hurrek udaleku dibertigarri batzuek gozatzeko aukera izan zuten.

Hartu beharreko neurri guztiak hartuta, uztailko lehenengo hiru astetarako programazioa osatu zen. Ekintza dibertigarri jositako udalekuak izan ziren:

- Gurpil eguna: hurrek gurpildun jolasen bat eraman behar zuten, bizikletak, patineteak, patinak... edozer zen baliogarri. Handienek txangoa egin zuten Legoretara; eta txikienek, hainbat zirkuitu osatu zituzten herriko plazan.
- Urarekin jolasean. Itsasondon igerilekurik ez dugu, baina urarekin gozatzeko aukerak ez dira falta! Ur jolas berriak egin zituzten plazan, bainujantzi eta txankletak jantzita, ur globoarekin bonba-jolasean aritzeak arrakasta izugarria izan zuen!
- Antzerki eguna ere izan zuten, etxetik ekarritako lau gauzarekin zeinen ondo pasa daitekeen!

Dena den, COVID-19arekin kutsatutakoen kopuruak gora egin zuenez, udaleku guztiak bertan behera uzteko agindua iritsi zen, eta azkeneko asteaz gozatzeko aukerarik ez genuen izan. Hala ere, hurrek bizi izandako bi aste eder horiekin geratuko gara! ■



Haurrak parkearen diseinatzaile

Itsasondoko haur parkea biziberritu eta herriko haurrei jolas espazio berri eta egokia eskaintzeko konpromisoari eutsiz, Itsasondoko Udalak parkea berdefinitzeko hilabete luzeko epean burutuko den parte hartze prozesuari ekin nahi dio irailean Urkipe herri eskolako haurrekin.

Itsasondon azken urteetan partaidetza prozesuek indar handia hartu dute herri bizitza sustatzeko garaian eta 2013an jada haurrei hitza emanez garatu zen "Haurren herria" egitasmoak arrakasta handia izan zuen. Proiektu honek atek ireki dizkie beste hainbat partaidetza egitasmoei.

Berriro ere herriko haurrei beraien lekua eman nahi zaie herriko parkea berritzeko prozesuan. Udalak oraingoan elementu naturalak nagusi diren jolas eremua eraiki nahi du, aurretik ordea haurren behar eta nahiak entzuteko prozesua martxan jarri.

Urkipe herri eskolako 6-12 urte bitarteko haurren taldea izango da partaidetza prozesuan parte hartuko duena. Hala ere, herriko gazte eta helduen parte hartzea ere aintzat hartuko da proiektua borobildu eta jolas parke berria guztien artean eraikitzeko.

Hilabete barruan burutu nahi da haur parke berria diseinatzeko prozesua. Diseinu prozesuarekin hasi aurretik, guraso zein haurrak udaletxera gerturatuko dira udalaren asmoa entzuterako, jolas parkeen eredu eta esperientzia ezberdinak ezagutu eta parte hartze prozesuaren oinarriak adostera. Saio hau partehartze kulturaren oinarri eta gakoetan hezteko erabiliko da.

Jolas eremuen eredu ezberdinak ezagutzea lagungarri egingo zaie jolas parke eredu berri bat utopia ez dela ulertzeko eta hortik abiatuta hausnarketak egiteko.

Guztira bost saioetan gauzatuko da partaidetza prozesua, hemen laburbildurik:



Aurre Saioa Prozesu osoan parte hartuko duen haur taldea eta gurasoak udaletxera gerturatuko dira udalaren asmoa entzuterako, jolas parkeen eredu eta esperientzia ezberdinak ezagutu eta parte hartze prozesuaren oinarriak adostera. Jolas parkea gauzatuko duen KIMUBAT enpresako ordezkariak jolas parke eredu ezberdinak aurkeztuko dituzte. Egoera berezi honengatik prozesutik kanpo geratzen diren haur eta gurasoentzako euskarri ezberdinak erabiliko dira prozesua bera eta parke ereduak ezagutu ditzaten.

Bisita Parke ereduak bertatik bertara ezagutzeko bisita bat antolatuko da Azpeitira.

1. Saioa Partaidetzan sakonduko dute. Jolas eremuaren gainean dituzten lehen nahiak eta hausnarketak jasoko dituzte. Guraso eta anai-arrebentzako galdetegia bat prestatuko dute haurrek, jolas eremuarekiko duten iritzia jaso asmoz.

2. Saioa Parkearen kokalekuko espazioa bisitatu eta aztertuko dute. Guraso eta anai-arrebei eginiko galdetegiaren emaitzak jasoko dituzte. Jolas parkeko lehen proposamenen lanketa egingo dute.

3. Saioa Taldekako diseinua egingo dute. Taldeetan adostutako ideiak maketa batean kokatuko dituzte. Amaieran lanak bateratzen dituen proposamena maketa bakarrean irudikatuko dute.

4. Saioa Udalarri aurreko saioetan eginiko lana eta emaitzak aurkeztuko dizkiete. Jolas eremuaren maketa erakutsiko zaie eta udal arkitektoarekin diseinua definitzen saiatuko dira. Partaidetza prozesua baloratuko da haurren eta udal ordezkarien eskutik.

Amaitzeko... Jolas parke berrirako proposamenak herritarrei erakusteko festa antolatu. ■



Herriko haur eta nerabeak

COVID-19 krisiaren ondorioz sortutako egoerak eragin handia izan du, eta izaten ari da, gure haurren eta nerabeen osasun fisikoan, fisiologikoan eta emozionalean. Izan ere, denbora batez ez dute giza-kontakturik izan (etxekoenaz gain), ezta aire freskoa hartzeko aukerarik edo mugitu eta bat-bateko jolasean aritzeko aukerarik ere. Nahiz eta ekintza horiek oso funtsezkoak izan haien garapenerako, osasunerako eta ongizaterako.

Jolasa, harremana, topaketa- eta abentura-espazioak desagertu ziren, eta egun oraindik oso mugatuta daude (musukoak jantzi behar dira, ezin da talde handietan egon...).

Eskola eta aisialdirako guneak ere itxi egin ziren, haurren sozializazio eremuak deuseztatu. Eten egin zen haurrentzat eta nerabeentzat esanguratsuak diren pertsonekin harremanak izateko aukera, hala nola, lagunekin edo hezitzaileekin. Horren ondorioz, gure haurrei, nerabeei eta gazteei murriztu egin zaizkie beren garapenerako eta bizitarako hain beharrezkoak diren bizipen-espereintziak eta aukerak.

Hezkuntza ez-formalaren alderdi garrantzitsuenetakoa da bere jardueraren oinarria haur eta gaztetxoan esperientziak eta bizitarako jakintza direla. Jolasaren bidez, berdinen arteko harremana sustatuta, dibertituta... gai ugari lantzen ditu: aniztasunaren balioa, genero-berdintasuna, sormena, adiskidetasuna, euskara, adimen emozionala... guztiak dira ezinbestekoak.



Itsasondon jakitun gara gure herriko haurren ere izan duela eragina pandemia honek. Agintariak agindu moduan, bai haur txokoa, baita gaztelekua ere itxi egin ziren; eta horrela jarraitzen dute gaur egun. Konfinamendu egoeran, gaztelekuko hezitzaileak harreman telematikoa jarraitu zuten herriko nerabeekin. Haurrei, nerabeei eta gazteei eman diezaioketun zerbitzu hezitzailea ez da bakarrik zerbitzu horien irekierarekin ematen, bestelako lanetak ere posible dira. Dena den, aurrepauso bat litzateke, beharrezko neurriak hartuta, espazio horiek irekitzea.

Udala, gazteria lantaldearekin batera, kudeaketa hori modu egokienean egiteko azterketa egiten dabil. Edukiararak eta pertsonen arteko segurtasun distantziak bermatzeko, espazio bakoitzeko balizko erabiltzaile kopurua eta errolda izatea beharrezkoa dugu.

Horretarako, bestelako erabakirik hartu baino lehen, **HAUR TXOKO ETA GAZTELEKUKO ERABILTZAILE ERROLDA EGUNERATU** behar dugu.

Oraingoz, haur txokoko eta gaztelekuko txartelak balio gabetuta daude. Aipatu bezala, udala hauek irekiera modu egokian egitea aurreikusten ari da.

Gizarte mailan denok egin beharko genuke ahalegina gure haur eta nerabeak babesteko. Horrez gain, egoera berri honetan, saiatu behar gara haien ongizatea beti gogoan izaten. ■

Itsasondoko pagadiak Naturarik gabe, etorkizunik ez

Zerbait ikastea tokatu zaigu azken hilabetetan. Ere mu artifizialek herritarren osasunari kalte egiten die, eta ekosistemak asaldatzeko moduko kutsadurak sortzen dituzte: lurzoruen galera, berotegi-efektuko gasak, airearen eta uren kutsadura...

Gure etorkizuna ziurtatu eta klima-aldaketari aurre egin nahi badiogu, natura zaindu beharrean gaude. Eta, gurean, basoak dira naturaren adierazpen jatorrenak eta zerbitzu gehien eskaintzen dizkiguten ekosistemak: karbonoa biltzen txapeldunak, airea eta ura garbitzen zer esanik ez, lurzoruei eutsi, lehorreak arindu... Laburbilduz, mesede ugari eskaintzen dituzte gure gizarteen erronkei aurre egiteko, gaur egungoei zein etorkizuneko.

Baso ahultzen duten jardunbideak alde batera uztea izango da lehen egin beharra: espezie exotikoen landaketa monoespezifikoak, mendia biluzten duten matarrasak, lurzoria makinekin trinkotzea, gure artean egurretarako gehiegizko ustiapena.

Itsasondon, baso batzuk mantentzen dira oraindik. Baso helduen ezaugarriak falta zaizkie horiei, batik bat, zuhaitz zahar erraldoiak eta basoek behar duten hildako egurra. Hura deskonposatzean, orbelarekin batera, baso-lurren ongari bihurtzen da, baita baso-biodibertsitatearen gordailu nagusi ere.

Basoan ez da hondakinik sortzen, dena aprobetxatzen

da; eta, lan horretan, ondoak zeresan garrantzitsua dute. Horregatik, Itsasondoko basoak erreserba mikologiko izendatu ditu udalak. Horrek ez du esan nahi ondoak ezin daitezkeenik bildu, baizik eta era guztietako ondoen azterketa eta jarraipena egin behar eta egiten dela. Euskal Herriko Ubibertsitatea, Aranzadi Zientzia Elkartea, Fraisoro Eskola eta Ultzamako Barruti Mikologikoko teknikariak bertan ari dira ikerketa lanetan, herriko ondozale talde baten laguntzarekin.

Aipagai dugun ondoen lanketa hau programa zabal batean dago sartuta, Murumendi azpiko basoen biodibertsitatea babestu eta hobetzen joateko. Programa hori babesten dute Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak eta Europar Batasuneko Eskualde Garapenerako funtsak, gu ere Udalerri Jasangarriren Euskal sarearen parte aktiboa garelako.

Naturzaindia Elkarteari esker ari gara lan hauetan, eta hemen duzue Urkin jarri berri dugun panel eder baten irudia. Urkiko frontoiaren atzealdean aurkituko duzue, bertatik igarotzen direnei Itsasondoko basoen argibide batzuk eskaintzeko. ■

Itsasondoko pagadiak
Hayedos de Itsasondo

Adin guztietako zuhaitzak eta hildako egurra, basoko natura-beretasunaren giltzarriak dira.

Los árboles de todas las edades y la madera muerta son claves en la riqueza natural de los bosques.

Fasola
Bosque
Protección

Baso-ekosisteman, zuhaitzekin batera, beste landare, animalia eta ondo ugari bizi dira.
En los ecosistemas forestales, junto con los árboles, conviven otras muchas plantas, animales y hongos.

Ondoak ezinbestekoak dira basoen funtzionamendurako: lur azpiko sareen bidez, zuhaitzak elikatu eta konektatzen dituzte.
Los hongos son imprescindibles en el bosque: forman redes sustentadas que alimentan y conectan los árboles.

Itsasondoko ondoak ezagutu eta babesteko, Itsasondoko Erreserba Mikologikoa sortu da.

Habitat-zuhaitzak landare eta animalien bizilekuak dira.

Habitat-zuhaitzen ezaugarriak:
1. Egur hila buruz
2. Haututako buruz
3. Haututako erretina
4. Antzaga, ondokoak
5. Azal-irru kalbas
6. Itzadura egur nukleoa
7. Zukua egur nukleoa
8. Zukoa emortaren behe aldean
9. Erber bane-hutia

Pagadien egitura hobetu eta habitat-zuhaitzak kontserbatzeko lanekin batera, saguzarritzako babes-kulturak jarri dira.
Además de hacer más y mejor la estructura de los hayedos y proteger los árboles-habitat se han colocado cagas-refugio para murciélagos.

Datu batzuk:
- Urkin jarri berria
- Urkiko frontoiaren atzealdean aurkituko duzue, bertatik igarotzen direnei Itsasondoko basoen argibide batzuk eskaintzeko.

Baso-argazkia:
Purifikazioa, berrakortzea, berreskuratzea, berreskuratzea

Logoak: Udalerria 21/30, Euskal Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Gabina Sodupe

Gabina itsasondarra Iraolan sortua da. 1945eko otsailaren 16an jaio zen, eta 75 urte ditu. Urte hartan elurra izan omen zen 45 egunez Iraolan. Neguan jaio zen, eta, bere esanetan, harrigarria izan zen, beldurgarria ere bai. Zenbait etxeetan aulkiak ere erre omen zituzten.

Zer nolakoa izan zen hemen (Iraolan) jaiotzea?

Zazpi senide gara, eta ni bigarrena naiz. Gure etxean behin ere ez da janaririk falta izan; hori bai, lan asko egindakoak gara. Txikitatik ohitu ginen lan egitera, eta horri eusten diot. Pentsa, eskolara bakoitza esne marmita batekin joaten ginen haurrak ginela. Eskolara joan orduko esnea banatzen genuen, eta bidean esnea marmitatik eroriz gero, amak esaten zigun bezeroei jakinarazteko gauean eramango genuela.

Arratsaldeko lauetan ateratzen ginen eskolatik, eta zuzenean etxera joaten ginen senideok. Gu ez ginen partikularretan gelditzen. Plazara iristerako 16:30ak izaten ziren, baina gero plazatik hona 10 minutuan etortzen ginen, bidezidorretik.

Urkiako eskola ezagutu al zenuen?

Ez, ez nuen ezagutu. Irakasleak azken eskola-urteak loian pasatu zituen, baina nik ez nuen eskola ezagutu. Entzunda bai, eta ondoren izan nuen irakasle hura ezagutzeko aukera. Baina eskola ez.

Gu beti Itsasondora joan izan gara eskolara. Gure irakasleak bazuen meritua. 5 edo 6 urterekin hasten ginen bertan, eta 15 urte arte han izaten ginen, guztiak irakasle berdinarekin. Eskolara joaten zenak ikasteko gogoia zuen, baina guk, askotan, ezin izaten genuen eskolara joan. Etxean lagundu behar izaten genuen. Adibidez, behin anaia izan genuen Tolosan ingresatuta. Nik 11 urte nituen, eta nire ahizpak 9 urte; eta bakar-bakarrik joaten ginen anaia zaintzera, trenez. Ni bi egunez joaten nintzen, eta ahizpa beste bi egunez. Ama ere joaten zen, noski; aitak lana egiten zuen Sarasolan, eta bera asteburuan joaten zen. A zer hamabost egun, ez zaizkigu ahaztuko haiek. Garai hartan anaia txiki bat genuen, bularra ematen zion amak; eta, ama etxean ez zenean, hura ezin ingainatuta ibiltzen ginen.

12 urterekin Azpeitira joan nintzen ikastera eta lanera.

14 urterekin Madrilera joan nintzen komentu batera.

24 urterekin ezkondu nintzen.

Osaba mutilzaharra ere etxean zen, eta berak laguntzen zuen txikiarekin, lanetik etortzen zenean.

Lan asko egindakoak gara etxean. Gure ama askotan gauean aritzen zen joste-lanetan. Gogoratzen dut nola esaten zion aitari: "Antonio, joan zaitezte ohera, haurrak nekatuta daude-eta". Aitak ohera eramaten gintuen, eta beraiek lanean jarraitzen zuten. Goizean, 04:30ean altxatzen zen taloak egiteko.

Murumendira ere joaten ginen belarra moztera. Egunean bi aldiz ere bai, Murumendiko puntara. Murumendi azpira ere bai, baita Larrakandara. Hori loiatik gora dago. Bertan lehenengo aldiz belarra moztu genuenean, Ordiziatik eta Itsasondotik futboleko ibiltzera joaten ziren, inguruko zelairik onena omen zen. Jai arratsaldeetan joaten ziren, udaran eta eguraldi onarekin.

Eskolan zenbat urte bete arte ibili zinen?

12 urteak bete arte Itsasondon ibili nintzen. 12 urterekin, Azpeitira joan nintzen. Barnetegi bat zen. Bertan ikasi egiten genuen, baina lana ere bai. Batzuk *kolegialak* ziren, horiek ikasi besterik ez zuten egiten. *Hogareñas* deiturikoak ere baziren, horiek ezkontzera zihoazen neskatilak ziren; eta, batez ere, etxeko lanak nola egiten diren ikastera joanak ziren. Familia onekoak ziren, eta hara bidaltzen zituzten etxeko kontuak ikasteko. Guk haiei laguntzen genien, etxeko lanak egiten; eta eskolako kontuak ere irakasten zizkiguten.

Jesus Maria izena zuen kolegioak, Loiolatik gertu zegoen. Gaur egun, bertan hotel bat dago.

Guri bertan denetarik erakutsi ziguten. Sukaldean, garbiketean, josten, eskola pixka bat... Jai arratsaldetan dantza egiten genuen. Panderoa jotzen zuen moja bat genuen, gure lehengusina, Azpeitikoa. Gu oso pozik egoten ginen han. Noizean behin etxera ere etortzen ginen.

Han zer ikasten zenuen orduan?

Batez ere etxeko-lanak egiten. Gure irakasleak mojak ziren.

Sarri etortzen zineten etxera?

Hilean behin-edo. Ni han bi urte-edo egon nintzen. Gero Madrilera joan nintzen handik.

Nolatan Madrilera?

Madrilgo komentu batera joan nahi ote genuen esan ziguten niri eta Azkoitiko neska bati. Eta hara joan ginen. 13 urte eta erdi edo izango nituen garai hartan. Han osaba eta izeba bat genituen, amaren ahizpa. Jai arratsaldetan nire bila etortzen ziren; eta Madril ibiltzen ginen, hara eta hona. Zortzi hilabete pasatu nituen han, eta igande arratsaldetan batetik bestera ibiltzen ninduten, Madril erakusten. Ni pozik.

Harremana mantendu duzu garai hartako lagunekin?

Bai, urtean behin elkartzten gara Azpeitian izan ginenok. Lagun handiak egin ginen, eta harremana mantentzen dugu.

Noiz arte Madrilan?

Madrilan zortzi hilabete igaro nituen. Gero, Azpeitian hilabete batzuk egin eta etxera itzuli nintzen. Banekien etxean lana zegoela; eta, gainera, nire ahizpa gaztea kolegiara joan zen. Nire beharra izango zutela pentsatu nuen, eta etxera itzultzea erabaki nuen. 15 urte egiteko nituen orduan.

Eta gero zer?

Ba etxera etorri, eta, berehala, haur bat zaintzeko eskaintza jaso nuen. Bergarako bikote bat zen. Hemen, etxean, pozik nengoan; baina, baiezkoa eman, eta nire bila etorri ziren hitz egiteko. 20 egunen buruan Bergaran nengoan. Bi urtez egon nintzen bertan, 17 urte bete arte. Oso ondo egon nintzen.

Eta berriro etxera.

Bai, baina ez denbora luze. Lagun batek eta biok Donostiako etxe batera neskame joateko gonbidapena jaso genuen, eta hara joan ginen. Bi etxeko-andre ziren, alargunak, eta dontzeila gisa aritu ginen bertan. Han ere oso gustura ibili ginen. Jai arratsaldetan konstituzio plazara joaten ginen dantza egitera.

Etxe ona zen, bizkondesa batena. Bertara jende garrantzitsua joaten zen oso. Nik ez nituen ezagutzen, baina hala ziren. Diru asko zuten, baina jatorrak ziren, eta ondo zaindu gintuzten. Jende garrantzitsua etortzen zenean protokoloak jarraitu behar izaten genituen... ikaragarria zen.

Zorte ona izan nuen. Nirekin beti oso ondo portatu ziren. Oso esker-tuta nago, asko ikasi bainuen. Ez da liburuekin soilik ikasten, horrela ere asko ikasi nuen.

Noiz itzuli zinen?

Belaunetatik gaizki jarri nintzen, eta etxera itzuli nintzen. Belaunetan mina izaten nuen. Esan dudana bezala, oso ondo zaintzen ninduten, pentsa, Donostian nengoela beraien mediku partikularra etortzen zitzaidan etxera. Gero, emakume hura ere etorri zen ni bisitatzera. Trenz etorri zen, eta Don Iñaki apaizaren etxean galdetu zuen nigmatik. Ahizpak lagundu zion nigana etortzen. Takoiekin etorri zen aldapan gora, irudikatu egoera. Esan nahi dudana da hartu-eman ona izan nuela alargun horiekin. Ni pozik egon nintzen haiekin, eta haiek nirekin ere bai.



Gabina, 24 urtekin.

Zenbat urterekin itzuli zinen?

20 urterekin. Eta hemen gelditu nintzen.

Gainerako senideak zer?

Etxera etorri, eta nire anaia zaharrena lanean ari zen mataderian. Beste bi, Goierriko eskolan. Ahizpa Azpeitira joana zen ikasketak egitera, ni bezala. Berak hiru urtekoa bi urtean egin zuen; eta, ondoren, etxera itzuli zen. Noski, guztiok etxean lan egiten jarraitu genuen. Larunbatetan zerbitzari joaten ginen ahizpa eta biok; ezkontzetara, batez ere, hainbat jatetxetara. Horrela aritu ginen lau urtez, ezkondu nintzen arte.

Hemen bidea egin zenean ere lagundu genuen ahizpak eta biok. Diputazioak diru bat eman zuen bidea egiteko, hiru metrokoa. Hemen zabalagoa egitearen aldekoak ziren; eta diru kopuru berarekin lortu zuten hiru metro eta erdiko zabalera duen erre-pidea egitea. Lan handia egin zen auzolanean. Asko kostatu zen, baina lortu genuen.

Noiz ezkondu zinen?

24 urterekin.

Ezkondu eta non jarri zineten bizitzen?

Beheran bizi ginen. Nire senarrak lan asko egiten zuen, bai lantegian, baita bere kontura ere. Villabonan etxebi-

zitza batzuetako instalazioa egiteko lana eskaini zioten. Biok joaten ginen instalazioa egitera, bera eta ni. Ni arratsaldero joaten nintzen gurasoei laguntzera, baita Benitoren, nire senarraren, gurasoen etxera ere. Gure semea Itsasondon, beheran, jaiotzen zen. Gure semea 4 urte zituela gure anaia Beasainera joan zen bizitzera, baserrian bizi zena. Gainerako senideak baserritik joanak ziren, emazteak kaletarrak zituztela-eta. Egoera horren aurrean, ni eta nire senarra baserri-iraigo ginen, gurasoak ez zeuden baka-rrik bizitzeko eta.

Zenbat urte hona gora etorri zinetela?

44 urte.

Gurasoak helduak ziren ordu-rako?

Bai, beraiekin bizitzera etorri ginen. Ordurako aita onenak emanda zegoela esan daiteke. Beranduago hil zen, 71 urterekin. Ama duela 17 urte hil zitzaigun. Gure ama ere, aita bezala, lan asko egindakoa zen.

Txikitatik baserritarra.

Bai, eta poz-pezik. Senarra lanera joaten zen, eta, nik, hemengo lanak egiten nituen: behiak jetzi eta bestelako etxeko lanak. Esne behiak genituen. Aurrena behera eramaten genuen esnea; eta, gero, etxera etortzen zen kamioia. Egunean 100 litro inguru ateratzen nituen.

Orain ganadurik ba al duzue?

Bai. Behi bat, hiru pottoka, untxiak, oiloak eta ardiak. Horrez gain, belardiak ere garbitu behar dira.

Egun zein da zure eguneroko martxa?

Goizean oiloei jana eman, eta arrautzak biltzen ditut. Ondoren etxera itzuli, eta gosaldut egiten dut. Jarrera txakurrei jaten ematen diet, eta paseatu egiten ditut. Ardiei ere pentsua eman behar zaie, baita untxiei ere. Baratzako lanak ere nik egiten ditut. Bazkaria jarri, etxea



Lagunekin Igaratzan.



Izeba eta anai-arrebeekin baserriko atarín, Gabina ezkerrekoa.



Anai-arrebeekin, erdikoa.



Lagunekin Urbian.

garbitu... Lan eta lan. Hori bai, siesta egunero egiten dut, ordu eta erdikoa edo. Gero gauean ere ez da lana falta izaten eta. Konpotak egin, bainak enbasatu, piperrak sartu, toma-teak egin, karakolak... iluntzean ere lanaldi jarraia. Hemen ez da lana bukatzen. Zer ez dugu egiten?

Saltzeko edo etxerako?

Etxekoentzako. Saltzeko ez. Gure ama joaten zen azokara. Baina ez, ni ez. Ama 10 urte zituenetik joaten zen. Pena eman zion nik horri ez jarraitzea, baina nahikoa lan banuen.

Oinez joaten al zen ama azokara?

Ez, normalean ez. Anaiak eramaten zuten. Batzuetan motoan ere joaten zen. Aurreko egunean eramaten zuten generoa zaldiz, eta bera aste-azkenetan joaten zen ferian produktak saltzera. Anaiaren batek ekar-tzen zuen berriz bueltan.

Nik 33 urterekin atera nuen kotxe-karneta. Artean nire bi anaia etxean ziren, baina martxa egitekoak

ziren. Horiek horrela, anaia gazte-nak kotxe-karneta ateratzea gomendatu zidan. Horrela egin nuen. Autoeskolatik liburua ekartzeko agindu nion, eta hura ikasten hasi nintzen. Hilabete batean atera nuen karneta. Ondo ikasita joan nintzen.

Osasun aldetik, itxura ona duzu.

Bai, lana egiteko sasoi betean nago. Baina gaizki ere pasatu dut, egia esan. Gure anaia gazteena hil zenean, oso gaizki pasatu nuen. Gero gaixotu egin nintzen, eta neureak pasatu nituen. Oso ahul nengoen, eta ez zekiten zer nuen. Azkenean kontu-ratu ziren herpes baten ondorioz zela; eta, beno, denborarekin indarrak hartu nituen. Baina, bai, a tope nago.

Zaletasunik?

Oso gustuko dut nire senideekin elkartzea.

Berriro jaiotzeko aukera izango banu soinu-jolea eta dantzari profesionala izango nintzateke. Hori argi daukat. Baina, orain, egun daukadan bizimodu-nahi dut, ez dut besterik eskatzen.

Irakurtzea ere oso gustuko dut. Betidanik. Asko irakurtzeak jakintza dakar, eta oso gustuko izan dut beti irakurri eta gauza berriak jakitea. Matematikak-eta inoiz ez ditut izan gustuko, baina irakurtzea bai.

Dantzatzea gustuko izanik, erro-merietan ibilia zara?

Noski. Itsasondon gizonak eta biok lehiaketa irabazi genuen behin. Beti dantzan ibiltzen ginen, beti. Donostian esaten zidaten: "Ene, ikusiko dun hartzen baldin badun dantzarik egiten ez duen gizona...". Suerte-a izan nuen, Benito ere dantzari bi-kaina izan da-eta, beti.

Zer duzu gustuko eta zer ez Itsasondotik?

Nire gustukoa beti izan da gauza arrunta. Nik behin ere ez diot gauza handirik eskatu inori. Niretzako gar-rantzitsuena da gertutasuna eta egia. Niri asko gustatzen zait jende-arekin hartu-emanaz izatea. Hori gustatzen zait. ■



Konparatzaileak

Gaur egun, prezioak konparatzeko gero eta webgune gehiago daude Interneten. Horietako bakoitza arlo batean espezializatuta dago.

Askotan ikusi ditugu telebistako iragarkietan prezioak konparatzen dituzten webguneak. Famatuenetako batzuk dira autoen seguruaren prezioak alderatzen dituztenak. Horiez gain, beste konparatzaile mota batzuk ere aurki daitezke Interneten:

1. Seguru prezioen konparatzaileak: Esparru horretan famatuena *Rastreator.com* eta *Acierto.com* webguneak dira. Horiek erabiltzeko modua oso erraza da. Zure autoaren modeloa, urteak eta hainbat datu sartu behar dituzu, lehendabizi. Webgune horiek daukaten "bilaketa-motorrari" esker, hainbat aseguru-etxek eskaintzen dituzten prezioak konparatzen ditu; eta, zure eskaeraren arabera, emaitza onena proposatzen dizu.

2. Bidaia konparatzaileak: Ziurrenik webgune gehien izango dituen gaia hauxe izango da. Webgune horietako asko famatuak dira dagoeneko. Gehienek antzera funtzionatzen dute, eta prezioak ez dira asko aldatzen, batetik bestera. Hori bai, azkenaldian *SkyScanner* webgunea gero eta indar gehiago hartzen ari da. *Kayak* eta *Momondo* ere oso erabilgarriak dira. Aholku bezala, webgune horietan "modu-ekzutuan" sartu zaitetzte, Interneteko nabigatzaileak aukera hori izaten dute. Gehien bat, zerbitzaileari uko egiteko erabiltzen da modu hori. Izan ere, zerbitzariak webgune horietara behin eta berriro sartzen zarela detektatzen badute, prezioak pixka bat putzen dituzte.

3. Denda konparatzaileak: Bi dira erabilienak. *Google Shopping* eta *Kelkoo*. *Google Shopping*-ek izan zituen arazo batzuk duela denbora bat. Izan ere, *Google*-n afiliatuta zeuden dendak nabarmentzen zituen. Alegia, garrantzia gehiago ematen zitzaion *Google* enpresan sartuta zeuden dendei, handik kanpo zeudenei baino.

Hori dela-eta, salaketak iritsi ziren kontsumitzaile departamentutik.

Kelkoo-k, berriz, milaka dendetan dauden produktu asko konparatzen ditu. Nahiz eta aurretik aipatu ditugun konparatzaileak diren erabilienak, *Amazon* edo *Ebay* ere askotan agertzen dira bilaketetan.

4. Mugikorren konparatzaileak: Famatuena *Kimovil.com* da. Merkatuan dauden mugikor guztiak konparatzen ditu. Ez bakarrik Europakoak, baita beste herrialdeetatik (Txina, India, Hego Korea...) inportatutakoak ere.

Zerrendatu ditugun horiek dira erabilienak. Hala ere, esan beharra dago, beste mota batzuetako konparatzaileak ere aurki ditzakegula. Adibidez: argindar prezioak konparatzen dituenak, Internet+mugikor+telebista operadoreak konparatzen dituenak, telebistak soilik konparatzen dituenak...

Batzuetan webgune horiek erabiltzea komeni da; modu horretara, webgune bakar batean denda askoren prezioak ikus daitezkeelako. Hau da, horrela, ez dugu milaka leiho eta orrialde irekita eduki beharrik.

Espero dut lagungarri izatea! ■

Mathina Rotimi Adegbo

Martina 2007an iritsi zen Alacantera (Herralde Katalanak). Ikasteko asmoz joan zen, baina taberna batean lanean hasi behar izan zuen. 2013tik Euskal Herrian bizi da.



Noiz etorri zinen Itsasondora bizitzera?

2017ko martxoan.

Non bizi zinen lehen?

Andoainen.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora bizitzera etortzea?

Alokairuko logelarik inon ez nuelako aurkitu, eta hemen lagun batek logela bat libre zuelako.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehenengo egunaz?

Ez zitzaidala gustatu.

Zer botatzen duzu faltan Andoaindik?

Denetariko zerbitzuak daude han. Komunikatzerakoan zailtasunak ditut, ez dakidalako euskaraz. Han errazago komunikatzen nintzen. Gainera, gure eliza ebangelista ere badugu han.

Zer botatzen duzu faltan Nigeriatik?

Familia eta bertako kultura.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen?

Ez nago ohituta euskara horrenbeste entzutera, eta harritu egin nau.

Eta zer duzu gustuko?

Jendea oso atsegina eta begikoa dela.

Zein zaletasun duzu?

Abestea.

Janari bat?

Paella.

Edari bat?

Coca-cola.

Itsasondo edo Goierriko txoko bat?

Itsasondoko plaza.

Amets bat?

Diruduna izatea, behar duen jendeari laguntzeko.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Seme-alabak izatea.

Zeri diozu beldur?


Heriotzari eta gaixotasun larriei.

Zer sortzen dizu irribarrea?

Nire seme-alabek.

Itsasondon biziko ez bazina?

Andoainen biziko nintzateke. ■



Tokiko garapen iraunkorraren ikuspuntutik gure udalerrriak duen egoera azaltzen duen herri diagnostikoa amaitu ondoren, udalak iraunkortasunerako Ekintza-plan berriaren edukia prest du. Plan horrek izaera estrategikoa izango du, Itsasondoko herritarren ongizatearekin zein ondarearen babesarekin zerikusia duten alderdi guztiak integratuko dituelako.



HERRITARREK EKINTZA-PLAN BERRIA EZAGUTU ETA LANTZEKO AUKERA IZANGO DUTE UDALEKO HIRU BATZORDEETAN

Tokiko Ekintza-plan berria diseinatzeko prozesua urte hasieran abiatu zen. Horretarako, herriko bizilagunei sektorekako elkarrizketak egin zitzaizkien, eta horietatik osatu zen herriaren gaur egungo argazkia.

Eguneraketa prozesu honetarako Udalak Laia Kooperatibako lantaldearen laguntza izan du. Ekintza-plan berriaren diseinu prozesurako, ezinbestekoa izan da herritarren ikuspuntua jasotzea. Horrela, "Guztionez Herria" egitasmoan sorturiko partaidetza dinamikak erabiltzea garrantzitsua izan da. Haiei esker, herriaren gaur egungo beharrak antzeman dira, eta Itsasondoko eszenatoki berrietara egokitzeko etorkizunerako erronkak eta helburuak definitu dira.

Udaleko hiru batzordeek (Lurraldekoa, Ongizatea eta Herri bizitza) ekintza-planaren eguneraketa prozesuaren jarraipena, koordinazioa, hausnarketa zein baliozkotze funtzioak bete dituzte, Laiako lantaldearen laguntzarekin.

Horrela, diagnostia aztertu ondoren, udaleko hiru batzordeetan zehaztu dira ekintza-plan berria osatzen duten helburu estrategikoak eta horiek lortzeko ekintzak.

Itsasondoko Udalak 2020-2025 epealdirako Ekintza-plana aurkeztuko die herritarrei



ITSASONDAREN ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Ekintza-plan eguneratu hau Itsasondoko Udaleko kudeaketa errazteko tresna izango da. Datozen bost bat urterako ikuspegia izango du, eta nazioarte mailako garrantzi iraukorrerako helburuei ere ekarpena egingo diena.

Besteak beste, hauek dira ekintza-planak jasotzen dituen erroka nagusiak:

- Herritarrak zaindu eta horien ongizatea bermatzeko, ongizate beharrak aztertu eta gaur egungo gizarte zerbitzuen eskaintza baloratzea.
- Herritarren lanpostuen sustapenerako lan egin, besteak beste, herriko enpresekin hitzarmenak sinatuta, herriko langabeen lan-poltsari lehenetasuna emateko.
- Herritarren beharrei egokituriko etxebizitza irisgarriak sustatzea.
- Herri bizitza eta gizarteratzea sendotzea, euskararen normalizaziotik, hezkuntzarako guneak prestatuta, eta berdintasuna bermatuta.
- Partaidetza prozesuak abian jartzea, haur eta gazteentzako jolas, kirol, kultura eta aisialdirako eremu erakargarriak prestatzeko.
- Lurralde antolamendurako plangintza garatzea, iraunkortasunaren ikuspuntua eta larrialdi klimatikoko egoerara moldatzeko irizpideak kontuan izanda.
- Mendien kudeaketan onura publikoak (aire eta ur garbia, lurzoruen egonkortasuna, biodibertsitatea, karbono metaketa, etab.) lehenetsiko dituzten ekimenak bultzatzea, eta kontsumo-ondasunak zerbitzu edo ondasun publikoen mende jartzen joatea.
- Motorrik gabeko mugikortasuna sustatzea, herriko irisgarritasuna bermatuz.
- Konexio azkarra udalerriko etxebizitza guztietara zabaltzen joatea.



EKINTZA-PLANAREN AURKEZPENA ETA LANKETA HIRU BATZORDEETAN EGINGO DA

Aurrerantzean, ekintza-plana garatzeko ardura udalak hartuko badu ere, ekintza horien lanketa eta datorren urteari begira abian jarri beharreko ekintzak lehenestea herritarrei ere badagokie.

Urriko batzordeetan aurkeztu badira ere ekintzen planaren nondik norakoak, eta bertatik jasotako iritziekin egokitu bada ere hemen duzue ikusgai:

2020-2025 EKINTZA PLANA

www.itsasondo.net/node/2298



Naiz kontzertuak

Streaming bidez egin ziren NAIZ kontzertuetan parte hartu zuten Itsasondoarrek. Ekainak 5ean Gatibu izan genuen; ekainaren 12, berriz, Nogen; eta 19an, Zetak taldearen kontzertua izan zen. Ondoren, ekainaren 28an Huntzak alaitu gintuen, eta kontzertu bira uztailearen 3an amaitu zen, ETS-rekin.

Ekimenaren helburuak bete ziren, parte-hartzea al-dakorra izan zen kontzertuetan, baina batez beste 50 bat lagun ibili ziren. COVID-19aren ondorioz ezarritako babes neurri guztiak bermatu ziren. Distantziak mantenduta, familia unitateak errespetatuta eta desinfektaziorako baliabideak jarrita. Musika eskaintza horrekin, Euskal talde horiei lagundu eta herri-giroa sortu zen. ■



Turistreatzen kale antzerkia

Barre egitea bezain gauza onik ez dela-eta, horretarako aukera paregabea izan genuen irailaren 18an. Trapu zaharrak konpainiakoek, "San Fernando" bidai agentziaren bidez, opor birtual batzuetan murgildu gintuzten, eta giro ezin hobea jarri zuten. 65 lagun egon ginen emanaldia ikusten. Herritar bat ere atera zuten oholtzara dantza egitera, eta antzezleek asko eskertu zuten publikoak izandako jarrera. ■



Tor magoa

Magiak badu bere xarma, eta herriko haurrek horrela bizi izan zuten, irailaren 25ean egindako emanaldian. Tor magoa izan genuen gurean, eta 58 haur eta gurasok haren trikimailuak ikusi zituzten. Haurrek, aulkietatik bada ere, parte hartzeko aukera izan zuten; eta ederki pasa zuten. Nola atera ote zuen laranja baten barrutik karta bat? Nola aldatu zien zapiei kolorea? ■



Txor-txor bakarrizketa umoretsua

Euskaldia badator eta horrekin batera belarri prest eta ahobizi rollak. Nola prestatzen gara ariketa horretarako? Umorez josita azaldu zigun Nerea Arriolak nola egin aurre erronkari. Egoera xelebreen pare jarri gintuen eta algara ugari sortarazi. Euskaldun izateak dituen traba eta abantailak agerian utziz.

50 lagun izan ginen frontoian, bete beharreko neu-
rriak hartuz. Euria zegoen eta zaparradaren batek,
soinua kaltetu bazuen ere, ekintza polita izan zen.

Ostirala 25ean da. ■



Oharrak



Eskola kirola

Urtarrilarte herrien arteko jolas lehiak atze-
ratu diren, entrenamenduak martxan hasi
dira. Aurten, hasiera batean behintzat, herriko
heldu bolondresekin koordinatu nahi dira entrea-
namendu hauek. Gazte heldurik balego entrea-
namendu hauetan esku bat botatzeko, jarri
harremanetan guraso elkartekoekin edo udala-
rekin:

itturritxikige@itsasosondo.eus /943881170 ■



Haur txoko eta gazteleku irekiera

Haur txoko eta gazteleku irekiera prestatzeko,
espazio hauek erabiliko dituztenen herritar-
ren zerrenda berrosatu beharko dugu. Egun, es-
pazio hauetako atea blokeaturik dago eta
espazioak irekitzen direnean hauek erabili nahi
badituzu, beharrezkoa izango da txartela egune-
ratua eta aktibatua izatea. Horretarako udalet-
xetik pasa eta eskaera betetzea beharrezkoa
izango da.

Ezingo da beste erabiltzaile txartel batekin es-
pazioak erabili, hortaz bai haur txoko eta bai gaz-
telekua erabiltzeko asmoa baduzu, pasa
udaletxetik eskaera sinatzera. ■



Liburutegi txokoa

Atal honetan liburutegiko azken berriak azaltzeaz gain, liburu baten gomendioa egingo dizuegu. Badakizue aldikariaren helburua herri-tarron parte-hartzea sustatzea ere badela, beraz, aholkatzeko moduko libururik bururatzen bazaizue, bidali proposamena itsasondo2.0@itsasondo.eus helbidera.

Azken liburu berrikuntza hauek izan ditugu liburutegian (Nobedeak apalean aurkituko dituzue):

Aurreko zenbakiko azken berrikuntzetan oinarrituta, gaurkoan, liburu hau aholkatu nahi dugu:

liburu gomendioa



LA DANZA DE LOS TULIPANES

Idazlea: Ibon Martin
Argitalpen-data: 2019
Argitaletxea: Plaza James
Orri kopurua: 496 orri

Ibon Martinen nobelaren bat irakurri duzenok eta bere azken lana irakurtzeko aukera izan baduzue, konturatuko zineten eleberrri beltzaren maisu bihurtu dela. Lehen orri-tik sortzen du jakin-mina, eta istorioren traman sarrarazten zaitu.

Sipnosia:

Natalia, Gemikako kazetari oso ezaguna, Urdaibaiko ibil-bidea egiten duen trenak harrapatzen du. Makinaren gidaria bere senarra da. Herriko komisarioa, berriz, bere maitalea. Biktima hil egin dute, tulipan delikatu bat eskuetan duela. Hortik aurrera, hilketa gehiago etorriko dira.


Tulipan lorea, gorri-bizia eta distiratsua, ederra bezain aurkitzeko zaila da. Bai azaro erdian, behintzat. Arretaz prestatutako hilketa, zuzenean eman da Facebook bidez. Ertzaintzako Unitate Bereziak, Ane Cestero buru duela, hiltzaile konplexu eta burutsua harrapatu beharko du.

Tulipanen dantzak Urdaibaiko inguruan murgiltzen gaitu, bertako lasaitasuna puskatzen duen hiltzaileak bat-batean astintzen ditu bertako biztanleak. ■



La consulta: Los últimos días de Santi Brouard

Harkaitz Cano



Educación tóxica: El imperio de las pantallas y la música dominante en niños y adolescentes

Jon E. Illescas



Bihotzaren ipar aldea

Dolores Redondo
(itzultzailea: Danele Sarriguarte, Rosetta TZ)



Lo que nos sale del útero

María Alonso Suárez



Maldita feminista: Hacia un nuevo paradigma sobre la igualdad de sexos

Loolá Pérez



Aralar: Mundua leku den lurra

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel
Argazkiak: Iban Toledo





(errezeta)

Baserriko oilasko-albondigak perretxikoekin eta foie-arekin

4 pertsonentzat:

- Bi etxeko oilasko bular.
- Baratxuria, perrexila, ogi xigortua eta esnea.
- Bi patata, koilarakada bat gurin, gatza, piperra, esne pixka bat eta foie medalioi bat.
- Tipula bat, porru bat, azenario bat, tomate heldu bat.
- Litro bat salda.
- Onddo handi bat.
- Lau foie medaloi.
- Lau gorringo.
- Gatza eta pipermina.

Bularrak txikitu eta nahastu baratxuriarekin, perrexilarekin eta esnetan bustitako apurrekin. Ondoren, frijitu.

Jarri patatak egosten; eta, behin egosita, purea egin, zartaginean egindako gurin, esne, gatza eta foie medailoiarekin.

Egin saltsa, gorritutako barazkiekin eta saldarekin. Nahastu eta gehitu gatza. Egosten amaitzerako, gehitu albondigak.

Oinarri bezala kozinatutako purearekin eta labean edo plantxan eginiko onddo xerrekin lagunduta atera daiteke plater hau. Oinarriaren gainean albondigak jarri; eta, albondigen gainean, plantxan eginiko foie medailoia eta gorringo gordina. Perrexil txikitua ere jar dezakezu, eta prest duzu zerbitzatzeko.

On egin! ■



Juanan Jiménez
Altamira jatetxea. Ordizia
677 293 697

Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun zenbait erdarakada. Saia gaitezen zuzentzen!

| Euskara "makarronikoa" | Euskara txukuna |
|-------------------------|------------------------|
| Zer ipintzen dut hemen? | Zer ipiniko dut hemen? |
| Ekartzen dizut bihar. | Bihar ekarriko dizut. |
| Hau non uzten dut. | Hau non utziko dut? |

Euskararen aurkako erasoak

Euskarak historian zehar eraso ugari jasan ditu. Datozen lerroetan zenbait adibide:

"No hablaré más en euskera porque es la lengua de E.T.A".

(Mikel Azurmendik, 2003ko urtarrilaren 19an Diario de Noticias egunkarian esana).

"Los maestros obligan a los niños a que hablen castellano; son castigados los omisos; no saben cómo explicarse, y causa risa y compasión al ver a los miserables cómo romancean las voces vascongadas."

(Jose Antonio Moguel, 1802ko uztailaren 20an)."

Euskaraz idatzitako iragarkia 1842ko Montevideoko prentsan

Ameriketan euskaraz argitaratutako izkriburik zaharrena aurkitu dute Renoko Basque Studies Center-eko bi Ikerlarik. Montevideoko egunkari batean azaldu zen, 1842an. Idazkerari erreparatuta, Ipar Euskal Herriko euskaldun batek itzuli zuela ondorioztatu dute. Ikerlarien arabera, idazki honek erakusten digu Uruguain euskaldun talde handi bat bizi zela, eta pertsona horiek euskaraz bizi zirela beren egunerokoan. Prentsan agerturiko esaldien zenbait adibide:

Poliçiaco avisua

República guçia harmetan [c]a[u]sicen delacots galdeguinac bactira, penarequin ichusten dugu badela ainhits orai artecan casuric preso yoatia es yaquines cein naçionetacoac. ■

Euskaraldia banderak salgai

Euskaraldia ekimena burutzen deneko herria girotze aldera, balkoi zein lehioetan jartzeko banderak salgai jarriko dira, Udaletxean eta Xaxintane tabernan. 5€ko prezioa izango dute.



Kultur Agenda

URRIA

- 6, 13, 20, 27:** 3. adina ariketa fisikoa (16:00) eta Tipi-tapa (17:00)
5: Lurralde batzordea (19:00)
7: Herri bizitza batzordea (19:00)
8: Ongizate batzordea (17:00)
14: Memori tailerra (18:00)
23: Sukaldaritza tailerra, ehiza (19:00)
29: Bingoa jubilatuetan (17:00)
29: Odol emaileak (18:30-20:30)
30: Hankaz gora, ipuin kontaketa antzetzuta (17:30)
31: Gau beltza

AZAROA

- 3,10,17,24:** 3. adina ariketa fisikoa (16:00) eta Tipi-tapa (17:00)
2: Lurralde batzordea (19:00)
4: Herri bizitza batzordea (19:00)
4: Memori tailerra (18:00)
5: Ongizate batzordea (19:00)
7-14: Kirol astea (programazio zehatza zabalduko da)
20: Musika emanaldia
20 - Abenduak 4: EUSKARALDIA
25: Emakumeen indarkeriaren aurkako elkarteratzea.
26: Bingoa jubilatuetan (17:00)

ABENDUA

- 2:** Memori tailerra (18:00)
5: Monologoa: Euskañolitis (Oihan Vega)
15, 22, 29: 3. adina ariketa fisikoa (16:00) eta Tipi-tapa (17:00)
24: Olentzero eta Mari Domingi
30: Bingoa jubilatuetan (17:00)



COVID 19 egoera dela eta, posible da ekintza hauetako batzuk burutu ezin izana. Web orri eta pantailetan emango da ekintzen zehaztasunaren berri.

Telefono interesgarriak

| | |
|---|-------------------|
| Udaletxea | 943 881170 |
| • Gizarte Langilea | |
| • Udal Arkitektoa | |
| • Epaitegia | |
| <hr/> | |
| Haurreskola | 943 164831 |
| Herri Eskola | 943 887704 |
| Arbel-Aitz Elkarte | 943 881339 |
| Lurdes Janari Denda | 943 885236 |
| Arrastoa Botika | 943 882148 |
| Medikuarenean Txanda Hartzeko | 943 007635 |
| Kaxintane Taberna | 606 756551 |
| Nautiko Taberna / Izaskun Hotela | 943 880012 |
| Izaskun Ilepaindegia | 943 160285 |
| <hr/> | |
| Sasieta | 943 161555 |
| Traste Zaharrak | 943 161590 |
| Taxi (Ordizia) | 943 881486 |

itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria ((46. zk)) Urria 2020

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran
 Asier Arbilla
 Asier Bazaga
 Belen Mendizabal
 Daniel Etxeberria
 Eneitz Albizu (UEMA)
 Eskolako irakasleak
 Haurreskolako hezitzaileak
 Guraso Elkarte
 Iñaki Aizpuru
 Juanan Jimenez
 Leire Garmendia
 Leire Irastorza
 Maite Lasa
 Nerea Manzisidor
 Unai Aldasoro
 Rosa Aurkia

itsasondo2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriko kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
 SS-297-2010 2171-5572



**UDALERRI
 EUSKALDUNEN
 MANKOMUNITATEA**



**GOGORARAZTEN DIZUEGU
 HURRENGO ALEA
 URTARRILEAN IZANGO
 DUZUTELA ETXEAN**

